


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EEKI) 2014ko MARTXOA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,2 gehitu ziren 2014ko martxoan aurreko hilaren aldean

2013ko martxoaren aldean eraikuntza gastuak %0,6 gutxitu ziren

2014ko martxoan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,2 gehitu zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,6 gutxitu, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 garestitu dira.

Martxoan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,2ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilek %0,1.

Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %1,2 jaitsi dira eta Obra Zibilekoenak %2,2.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artean urte artean (2014ko martxoa 2013koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: Zurgintza (%1,2) eta Energia elektrikoa eta gasa (%1,2). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: Petrolio-fintzea (%6,8), Metalurgia (%4,6), Material elektrikoa (%2,4).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2014KO MARTXOA(p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m -1	m / m -12	m / abendua
GUZTIRA	102,6	0,2	-0,6	-0,1
ERAIKINAK	102,4	0,2	-0,5	-0,1
OBRA ZIBILA	103,9	0,1	-1,3	0,0
LEHENGAI A	101,9	0,2	-1,3	-0,6
ERAIKINAK	101,6	0,2	-1,2	-0,7
OBRA ZIBILA	103,4	0,1	-2,2	-0,5
LAN-ESKUA	105,4	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua